

EROSKI-K ETA KOSNER BASKONIAK BERRITU EGIN DUTE BIZIMODU AKTIBO ETA OSASUNGARRIA BULTZATZEKO EGINA DUTEN LANKIDETZA HITZARMENA

Elorrio, 2025eko abenduaren 10.- **EROSKI**k beste urtebetez berritu du Saski Baskoniarekin duen lankidetzaren hitzarmena, 2010tik sendotuz doan harremana. Aliantza horren helburua da elkarrekin sustatzea bizimodu aktibo eta osasungarri bat, nola eta, kanpainak eta ekimenak gauzatuz, orain arte egiten aritu diren moduan, hala nola jarduera fisikoa, oinarriko kirola, osasun eta elikadura zaintza eta tokikoaren aldeko apustua. Sinadura horri esker, zaleek jarraituko dute gozatzen Buesa aretoan egiten diren ekintzekin; horien artean, partidetak atsedenaldietan egiten den saskiratze lehiaketa, zeinaren saria baita 150 euro balio duen Eroskiren orga bat, eta ildo horretan doazen beste sustapen batzuk klubeko jokalariekin; esaterako, topaketak eta autografo sinatzeak Eroskiren saltokietan.

Hitzarmena izenpetzeko argazkira, Zulima Valdivielso azaldu da, Eroskiren supermerkatu salmentetako eskualde arduraduna bera, eta Manu Diaz de Tuesta, BASKONIAren enpresa arloko kudeaketaz arduratzen den sales managerra. *"Pozez gaude klub handi honen ondoan lanean jarraitu ahal dugulako osasunari, kirolari eta tokikoari loturiko balioetan". Zalantzarik gabe, erakunde erreferentea da lurraldean; ongizatearekin konprometituta dago, eta beti dago irekia Eroskirekin Arabako gizartean eragin onuragarria duten ekintzetan jardutera",* azpimarratu du Zulima Valdivielsok ekitaldian.

Manu Diaz Tuestak, berriz, hauxe nabarmendu du: *"Kosner Baskoniarentzat harro egoteko modukoa da EROSKIrekin batera gure bidea beste urtebetez berritzea, funtsezko aliatua baita bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko eta gure lurraldean kirola bultzatzeko. Esfortzua, gertutasuna eta Arabako gizartearekiko konpromisoa bezalako funtsezko baloreak partekatzen ditugu, eta akordio honek saskibaloia eta gure ekimenak zaleengana hurbiltzen jarraitzeko aukera ematen digu. Ziur gaude, elkarrekin, esperientzia ilusionagarriak eta eragin positiboa sortzen jarraituko dugula gure komunitatean".*

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay/Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 19